



ESKOLA KIROLAREN EUSKAL EREDUARI BURUZ HAUSNARTZEKO JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

Ondorioak lantegietan izandako eztabaiden fruitu dira, eta jardunaldietara bertaratutako guztiei aurkeztu zaizkie. Era berean, jardunaldien azterketa orokorra eginik, lantegietako dinamizatzailen eta idazkarien ekimenez, jarraian jasotzen den testuri buruzko iritzia eman ahal izan zuen Batzar osoak. Testuak jardunaldietako funtsezko ondorioak azaldu, eta, nolabait ere, atera nahi ditu. .

Eskola kirolak hezkuntza-prozesu integraleko oinarritzko ardatza izan behar du. Era berean, jendearengan ohitura osasungarriak sustatzeko bide bat izango da. Nolanahi ere, eskola-umeekin garatzen diren jarduerak eta eremuak edozein direlarik ere, ororen gainetik, osasun fisiko, psikiko eta sozial hobeagora orientatu behar dira.

Aurreko hori lortzeko, **Eskola Kirolaren Euskal Ereduaren** behin betiko diseinuan, eredu horren aplikazioan nahiz eredu horren etorkizuneko berrikuspenetan, ondoko hauek hartu beharko dira kontuan:

- Eskola kirolari esleitzen zaizkion printzipioak eta balioak eguneroko praktikara eramateko mekanismo eta proposamen zehatzak.
- Kirolaren irakaskuntzaren kalitatea nabarmen hobetzeko estrategiak eta baliabide ekonomikoak, bai ikastetxeen eremuan eta baita eskola-umeen kirolaz arduratzen den beste egituretan ere:
 - Epe laburrera, eragile desberdinen arteko koordinazioaren funtzioa sendotuz, maila guztietara, eskola kiroleko teknikarien trebakuntza hobetuz eta, azkenik, pixkanaka profesionalizatuz.
 - Epe ertain eta luzera, ikastetxeetan, heziketa fisikoan eta kirolean tituludunak diren profesionalen eskutik, kirol-hastapenaren zati garrantzitsu bat, eta orientaziorako egitura eraginkorrak barne hartzea sustatuz, eta, era berean, eskolakoak ez diren kirol egituretan pixkanaka sartuz.
- Lehiaketaren alderdi guztiei heziketa-izaera ematea. Izan ere, kirolak sortzen dituen heziketa-aukerak praktikan jartzeko aukera ezin hobe delarik ulertzen da.



1. LANTEGIKO ONDORIOAK

Gaia: “Eskola kirolaren euskal eredia: oinarri orokorrak”

1. Eskola Kirolaren Euskal Ereduko oinarri orokorrak onartzen dira, jadanik Kirolaren Legean jasota daudenak, alegia.

Oinarri horiek Kirolaren Euskal Planean jasota egoteak aukera ezin hobe eskaintzen du oinarriak hiru lurralde historikoetan homogeneouski aplikatzeko legearen arau-garapenaren berrikuntzatik abiatuta gauzatuko da. Arau-garapen horrek Legearen zenbait alderdi, batez ere, eskolako kirolaren antolamenduarekin zerikusia duten alderdiak, zehazteko balioko du.

2. Funtsezkoa da Hezkuntza Sailaren inplikazioa bilatzea. Horrela, Heziketa Fisikoaren alorraren eta eskola kirolaren jardueren artean garapen harmoniko bat sustatuko litzateke. Modu horretara, bere kalitatea bultzatuko da, eta bere heziketa-izaeran sakonduko da, eta adin horietan jarduera fisikoak duen defizita gaituko da.
3. Eskola kirolaren izaera pedagogikoa (balioetan edo gai etikoetan) eta, aldi berean, kirolaren alderdi tekniko eta taktikoen irakaskuntza guztiz bateragarriak izatea.
4. Oinarri orokorrak egokienak badira ere, horiek eskolako kirolaren eguneroko errealitatera eramateko lan egin behar da. Hori horrela, trebatzaileen prestakuntzaren, gurasoen sentsibilizazioan, eta oinarri horiek benetan gauzatzea eragozten duten beste alderdietan jardun behar da.
5. Ondoko hauek bezalako alderdien garrantzia azpimarratzen da: lehiaketa, talentuak atzematea, trebakuntza-jarduerak, esku-hartzen duten eragileak eta horien funtzioak, landu beharreko edukien irakaskuntza, begiraleen trebakuntza eta titulazioa, jardueren ikuskapena, Eskola-kiroleko programen gutxieneko edukia, Foru Aldundiek baimenak emateko irizpide bateratunak, eta abar.
6. Euskal Plangintzan eskola kirolari buruz jasotzen den zehaztapena ez da Kirolaren Legean jasotzen denaren berdina (azken horrek bere zehaztapenetik at uzten baititu 0tik 6 urtera bitarteko haurrak). Hala ere, adin horretako neska-mutilak ere heziketa jasotzen dutela ulertzen da, eta, beraz, kirolaren balioak ere igorri beharko liratekeela ulertzen da.
7. Planaren onspena aukera on bat da, Ikastetxeetako heziketa-plangintzatan Kirolak igortzen dituen balioak barne hartu daitezzen, baita beste gaietara lekualdatuz eta egokituz ere.



2. LANTEGIKO ONDORIOAK

Gaia: “Eskola-kiroleko euskal ereduak: araudiarekin eta antolamenduarekin zerkusia duten alderdiak”

1. ERAGILE DESBERDINEN FUNTZIOA.

Kirolaren garapenean parte hartzen duten eragile desberdinek bete behar dituzten funtzio garrantzitsuenak hauek dira:

Eusko Jaurlaritza:

- Eskola kirolari buruzko araudi orokorra.
- Euskadiko txapelketak arautzea infantil mailan
- Teknikariaren trebakuntza arautzea.
- Erkidegoaz gaindiko lehiaketetan parte hartzeko baimenak.

Foru Aldundiak:

- Jardueren urteko programak
- Lizentzia federatuen izapidetzeak baimentzea
- Urteko programetan barne hartzen ez diren beste jarduerak gauzatzeko baimenak.

Ikastetxeak:

- Biztanleria osora zuzendutako jardueretan parte hartzeko oinarrizko programak.
- Kirolaren administrazio-, antolamendu- eta trebakuntza-alderdien arduradunak.
- Trebakuntza-alderdia garatzean oso garrantzitsua da ikastetxeen eta kirol-kluben arteko lankidetzak.
- Nolanahi ere, kirolaren trebakuntza-alderdiaren ardura hezkuntza-komunitateak eduki behar du, eta, ondorioz, hezkuntza-komunitatea izango da aitzindaria eskola-kirolean. Aitzindaritzak hori ez du beregain hartu oraindik Hezkuntza Sailak.

Kirol-klubak:

- Teknikifikazio-jardueretan, eta errendimendurako hastapeneko lehiaketetan lehentasuna.
- Federazioak eskuordetzen, jardueretako laguntza teknikoa gauzatzen dute.

Kirol-federakuntzak:

- Jardueretarako laguntza teknikoa.
- Irakaskuntza-programak diseinatzen laguntzea.



Udalak:

- Programak gauzatzea Foru Aldundiekin koordinatuta.
- Instalazioak erabiltzen uztea.

Familia:

- Familia goiburuaren azpian batez ere gurasoak sartzen dira, baina beste kide batzuk ere aintzat hartu behar dira; izan ere, eskola kirolean eragin handia duen eragile garrantzitsu bat da. Ondorioz, ez da ahaztu behar kolektibo hori eskola-kirolean hobekuntzak sartzekoan.
 - Zenbait gurasoren jokabide desegokia ez da orokortu behar familiaren kolektibo osora.
 - Eskola kirolaren ereduaren oinarri diren irizpideak eta igorri nahi diren balioak haurren familiartekoei jakinarazteko helburua duten ekimenak garatu beharko lirateke.
 - Hemen kontuan eduki behar dira diziplina anitzeko batzordeen bidez beste heziketa-eremuetan aplikatzen diren esperientziak.
- Parte hartzen duten erakundeetatik sustatu behar dira eskura dauden aurrerapen teknologikoak, ikerkuntzaren eta garapenaren sustapena, eta etengabeko trebakuntza eskola kirolean parte hartzen duten eragileen eskura jartzeko neurri egokiak.
- Beharrezkoa da Eskola kirolean parte hartzen duten eragile desberdinen arteko lankidetzeta eta koordinazio egiturak edo formulak ezartzea bultzatzea.

2. KIROL-IRAKASKUNTZAK.

Hiru alderdi hartu dira kontuan:

Irakaskuntza planifikatzea: Kirol-irakaskuntzaren prozesuak planifikatu egin behar direla ulertzen da, helburuak, edukiak, ebaluaketarako metodoak eta abar ezarriz, eskola-umeen adinaren, modalitateen, jarduera-moten eta abarren arabera.

Kirol-irakaskuntzak arautzea: Kirol-irakaskuntzako jarduerak arautu behar dira. Araudi hori estuki lotuta egon beharko du kirol-titulazioen eta kirol-guneen titulazioen araudira.

Kirol-hastapeneko prozesuak: Kirol aniztasuna zentzu zabalenean sustatuko duten beste hastapen-metodo batzuk hartu beharko dira kontuan, eta ez kirol-modalitate desberdinen eskaintzan bakarrik oinarritzen dena.



3. ARAUDIEN EGOKITZAPENAK.

Araudien egokitzapenak dira kirolaren hastapenean eta irakaskuntzan funtzio garrantzitsuenetako bat betetzen dutenak. Izan ere, eskola-umeen interesentzat eta ezaugarrientzat egokienak diren praktika-baldintzak ezartzea ahalbidetuko dute.

Planteamendu horrekin bat etorritik, egokitzapen horiek ezartzean kontuan hartu beharko dira adin bakoitzean landu beharreko helburu eta edukiak.

Hiru jarduketa-eremu zabal bereizten dira:

Jokorako araudiak:

- Baloien, aparatuen eta abarren tamaina eta pisua.
- Zelaien eta ateen neurriak, sareen eta saskien altuerak, proben distantziak, eta abar.
- Jokalari-kopurua eta horien txandaketa.
- Arau teknikoak: banakako defentsak, jokoz kanpoko araua, hiru puntuko jaurtiketa, eta abar.
- Eskola kirolarien kirol portaera edo portaera etikoa.

Arbitrajeak:

- Arbitrajearen heziketa-funtzioa.

Lehiaketako araudiak:

- Fasekako egituraketa.

Azkenik, kontuan hartzen da egokitzapenak EAEko hiru lurraldeetan homogeneouski ezarri beharko direla, erakundeen eta modalitate bakoitzari dagozkien federazioen arteko akordioaren bidez.

4. IRAKASKUNTZA ESKOLA KIROLEAN.

- Eskola-kirolean irakasten duten teknikarien prestakuntzan eta gaikuntzan gabezia handiak dauden batez ere zenbait kirol-modalitateetako lehiaketetan jarduten den kolektiboan.
- Gainera, egungo egoeran ez dago federazioaren eremuan hobekuntza ekarriko duen alternatibarik.
- Beharrezkoa da eskolako kirola irakasten duten teknikarien baldintzak hobetzea:
 - Egonkortasun handiagoa
 - Karga pedagogiko handia duen profila



- Irakasleen motibazio eta inplikazio handiagoa.
- Baldintza horiek teknikarien profesionalizatzearen bidez lor daitezke. Profesionalizatzeko horren bidez TAFYC tituludunetara, erdi-mailako teknikarietara edota baita goi-mailako teknikarietara ere jo daiteke.
- Hala ere, azken emaitzak izan daitezkeen horien horizontea galdu gabe, irakaskuntza-ikaskuntza erlazioaren hobekuntzarekiko erlazio zuzenean egungo beharrei epe motzean edo ertainean erantzuteko beharrak egun bideragarriak diren neurriak abiaraztea inplikatzeko du. Horretarako neurri desberdinak planteatzen dira. Neurri horiek eskenatoki desberdinetan eztabaidatu dira, eta une honetan lurraldeko eta autonomiako ordezkariak duen erakunde arteko batzorde batetan zehaztu nahi ditugu.

Zentzu horretan, kirolaren irakaskuntzan nabarmentzen diren bi irudi garrantzitsuenak eskola kirolaren koordinatzaileak eta irakaskuntzako teknikariak dira.

Eskola kiroleko koordinatzaileak

- Ikastetxeetako koordinatzailearen irudia sustatzea, epe ertainean irakasleen prestakuntza hobetzeko bide gisa.
- Koordinatzaileek beregain hartuko lituzkete antolamenduarekin, administrazioarekin eta trebakuntzarekin lotutako lanak. Azken arlo horretan eskola kirolaren plangintza eta programazioa ere barne hartuko lirateke.
- Matrikulatu dien partaide kopuru txikia dela eta, edo antolamenduarekin lotutako beste arrazoi batzuk direla eta, plangintzarekin eta programazioarekin lotutako lana ezingo balitz gauzatu, lan hori udal edo eskualde eremu batetan, edo, kasuan kasu, ikastetxeaz gaindiko eremu batetan aholkularitza edo zuzendaritza teknikoak emateaz arduratzen den pertsonak gauzatu beharko luke.

Eskola kiroleko teknikariak

Profila:

- Adina: 18-25 urte bitarteko gazteak
- Jatorria: ikastetxeko ikasle ohiak; inguruko klubak.
- Gutxienezko trebakuntza: eskola-kiroleko teknikari izateko ikastaroa; bateratzeko, jarraipeneko eta laguntzarako ekintzak.

Gutxienezko trebakuntza:

- Eskola-kiroleko teknikari izateko berariazko ikastaroak (erakunde arteko batzordeko irizpideen arabera):
 - Iraupena: 45 ordu, gehi 150 praktika-ordu.



- Bloke komuna: Kirol-titulazioen lehenengo maila.
- 6 urtetik 16 urtera bitarteko haur-gazteen ezaugarrietara egokitua.
- Edukiak:
 - Oinarri biologikoak
 - Alderdi psikopedagogikoak eta didaktikoak (jarrera eta ikaskuntza).
 - Kirol-entrenamenduaren teoria eta praktika (kirol desberdinetan komunak diren alderdiak)
 - Kirolaren antolamendua eta legedia.
- Arazoak egon daitezke jadanik Dekretu bidez arautu diren titulazioekin. Hori dela eta, ekimen horiek eskudun diren erakundeekin koordinatu beharko dira.

Jarduketa-eskema

Kirola irakasteko jarduketa-eskema ondorengo hau da:

- Eskola kirolaren koordinatzaileek, edo lehen aipatutako zuzendari edo aholkulari teknikoek, kirolaren irakaskuntza planifikatu eta programatu beharko lukete. Horretarako, erakundeen (oso komenigarria da eremu honetan profesional tituluak prestatzen diharduten ikastetxeek parte hartzea, hala nola SHEE, eta Irakasle Eskola.) eta kirol federazioen arteko akordioa lortu beharko da modalitate bakoitzerako.
- Irakaskuntzako teknikariak, trebakuntzarako oinarrizko ikastaroan egin ondoren, irakaskuntza-saioen, entrenamenduen nahiz lehiaketa-jardunaldien garapenaz arduratuko dira. Horretarako koordinatzaileek prestatutako programazioa jarraituko dute, eta horien aholkularitza, laguntza eta jarraipena jasoko dute.

Ikasturtean zehar egindako lana titulazioa lortzeko behar diren praktika-ordu gisa hartuko da.

5. KIROLAREN EUSKAL PLANA.

- Kirolaren Euskal Plana Kirolaren Euskal Batzordearen jarraibideen arabera garatu bada ere (eta Batzorde horretan estamentu desberdinen ordezkapena bada ere), ez da nahikoa eztabaidatu, eta ez du eskolako kirolaren eremuan parte hartzen duten eragileen partaidetzarik izan. Presaka egiten ari dira, eta behar bezala eztabaidatu gabe. Horrek azken produktuaren kalitatean eta planteatutako neurrien aplikazio errealean eragina izan lezake, eragile desberdinak inplikatzan ez direlako.
- Posible izango balitz, Planaren jakinarazpena, hedapena eta eztabaida bultzatzeko denbora-epe handiagoa ezarri beharko litzake. Horrela, parte hartzen duten eragile guztiek partaidetza eta inplikazio handiagoa lortuko lukete.



- Beste zerbait ere planteatzen da: Hezkuntza-komunitatetik ondorioztatutako irizpide pedagogikoen, eta maneiatzen duten informazioa jasotzen duten iturrien (komunikabideak, ikuskizunak,...) eragina jasaten duen *errealitate sozialaren* arteko oreka bilatzeko prozesuaren fruitu bezala ulertzen diren neurriak proposatu ditu Kirolaren Euskal Planak.
- Hortik ondorioztatzen da, Gipuzkoan adibidez, eskola kirolaren ereduak dituen hezkuntza-balioak murrizten utzi dela kasu batzuetan. Etorkizunean, balio horiek igortzea eta, horrela, gure hiritarren kirol-kultura areagotzea azpimarratu beharko litzatekeela uste da, gure eskola-umeei eskaini nahiko geniekeen eskola kirolaren ereduari buruz erabakitzeke irizpidea ezartzeko helburuarekin.
- Komenigarria da Planaren garapenaren ebaluazio-formulak ezartzea.

6. TALENTUAK ATZEMATEA.

- Atzemate-prozesuei ekiteko gutxieneko adina jaisteak eduki dezakeen eraginagatiko kezka adierazten da. Izan ere, horrek ikastetxeen egituraketan edo eskola-kiroleko taldeen kohesioan bezalako alderdi garrantzitsuetan eragina izan dezake.
- Zalantzan jartzen da talentuak atzemateko prozesuetan psikologiarekin, pertsonalitatearekin, osasunarekin, eta abarrekin lotutako alderdiak kontuan hartu ote diren. Alderdi horiek atzematea oso zaila da oraindik adin horietan.
- Modalitate bakoitzerako atzemate-irizpideak ezarri behar direla uste da. Irizpide horiek bateratuak izango lirateke EAE osorako. Gainera, irizpideak talentua duten gazteen hautaketa egoki bat ahalbidetuko duten oinarri zientifikoekin ezarritako parametro teknikoetan oinarrituko lirateke. Horrela, epe luzera ahalik eta kirol-errendimendu handiena lortu ahal izango litzake, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, epe motzera edo ertainera.



3.LANTEGIKO ONDORIOAK

Gaia: “Kirolaren Euskal Planetik eratorritako neurriak ezartzea: ondorioak antolamenduan eta eskola-kiroleko jarduera praktikan jartzean.”

1. KIROL-IBILBIDEAK ETA ADINAK

KEPean deskribatutako hiru ibilbideak aztertu dira:

- A Kirolaren praktikan jarraikortasuneko programak
- B1 Errendimendu-hastapeneko programak
- B2 Talentuak/Etorkizuneko kirolariak identifikatzeko programak

Ondoren, hiru ibilbide horiek adin desberdinetan antolatzeko aukera desberdinak luze eztabaidatu dira, eta ondoko ondorioetara iritsi da:

Alebin maila (2. urtea)

- “A” ibilbidea egun Gipuzkoako eskola-kirolean aurreikusten diren baldintzatan mantenduko da.
- “B1” ibilbidea (eta, kasuan kasu, “B2” ibilbidea), gauzatzea beharrezkotzat hartzen den modalitate horietan, “A” ibilbideari gehitutako “plus” gisa hartuko da.
- Nolanahi ere, adin hori oro har errendimenduan hasteko goiztiarra dela kontuan hartuta (izaera indibidualeko zenbait modalitatetan izan ezik), “B” programei dagokien “plusa” “A” ibilbidearen epealdi desberdinean garatu beharko litzake. Inolaz ere ezingo dira bi jarduerak gainjarri, eta jardueraren bolumen osoa arrazionalizatu egin beharko da.

Infantil maila

- Adin horretan “B” programak garatzen dituzten kirol-modalitateen artean, izaera orokorrean, Alebin mailarako (2. urtea) ezarritako eredu bera aplikatuko da. Ibilbideen arteko bereizketa bat ematen den kasu horietan bereizketa horrekin jarraituko da. Era berean, bereizketa hori antzeko ezaugarriak dituen beste modalitaterekin batetan ere ezarri liteke.

Kadete eta jubenil maila

- A ibilbideak maila horietan jarraikortasun bat izatea proposatzen da, adin horietako xedeekin ados dauden jarduera berritzaileen eskaintzak ezarriz.



2. ESKOLA-KIROLEKO LEHIAKETAK

Eskola kirolaren Euskal Ereduak bi lehiaketa-eredu bereizten ditu: aldatua edo partaidetzakoa, eta errendimendurako hastapeneko edo selektiboa.

Beste batzuen artean, ondoko hauek dira lehiaketa aldatuan eta egokituan sar daitezkeen “aldaketa” interesgarrienak:

- Lehiaketaren araudia (zelaien neurriak, baloiak, joko-denbora, taldeko lana eta lankidetzaren sustatzen duten neurria, eta abar)
- Lehiaketa helburu gisa ezartzea, mailaz igotzeko edo jaisteko aukerarik gabe.
- Kirol-taldeak osatzen dituzten kirolarien %100ek parte hartzea, talde horiek sexu berekoak edo mistoak izan.
- Klasifikazioak zehaztu gabeko lehiaketak ezartzea.
- Arbitroa eskolako kirolaren funtzio pedagogikoak inplikaraztea.
- Kirol-taldeen kirolariak kokatu behar direnoko postuak teknikoki berariazkoak ez izatea (postuak txandatzeko).
- Entrenatzaileak arbitraje-lanetan inplikatzea, eta alderantziz.
- Jokoa garatzen den bitartean entrenatzaileak trebakuntza-funtzioa betetzea ahalbidetzea (hutsarteak eta abar).

Laburpen gisa, aldatutako lehiaketetan ondoko oinarritzko bi ekintzak ezarriko dira:

1. “Portaera-kodeak” ezartzea. Kode horiek eskola-kirolean parte hartzen duten eragile guztiei aplikatuko zaizkie (gurasoak, arbitroak, entrenatzaileak, jokalariek).
2. Lehiaketak moldatzea, parte-hartzaileen artean garapen biologikoko desberdintasuna minimizatzen duten baldintza horietan.

3. KUPOAK: FUTBOLAREN KASUA

Eskola Kirolaren Euskal Ereduak xedatzen du “Eskola Kirolaren Batzordeak zehaztuko dituela errendimendu-hastapeneko jardueretan parte hartzeko gehieneko kupoak, modalitate eta kirol-ibilbide desberdinen arteak oreka bat lortzeko helburuarekin”.

Irizpide horren aplikazioa garrantzi bizikoa da bereziki futbolaren kasuan. Duela gutxi Gipuzkoako eskola-futbola antolatzean lortutako akordioan ezarritako kupoak aztertzen da, kontuan hartu beharreko erreferentzia gisa hartuz. Aipatutako akordioak ezartzen du alebin kategoriako 2. urteko mutil guztietatik gehienez ere %15 “B” programa jarraitzen duena izango dela.

Era berean, beharrezkoa da Batzordeak aipatutako kupoak lurralde guztietarako homogeneotasun irizpideekin ezartzea.